

ETA 10.– MEXIKO



Goitik beera etorri ezker, Latin-Amerikara sartzeko atea da Mexiko.

Biztanleak inditarren eta Españatarren ondorengoak dira.

Goi-maillako leun-une aundi baten (2 240m.´ko goiereaz), sumendiz inguratuta (Orizaba-5 748m., Popocatepete 5 452m., Iztaccihurati 5 280n.) dago Mexiko.

Egualdi ona dauke urte guztian, naizta gauak apur bat ozkirriak izan, baiña uriburutik 100 km.´ra bero ederrak egiten dauz.

Lenago mayak eta aztekak ziran ango biztanleak eta ikusten dira euren aztarnak oraindiño, esaterako Yukatan lurraldean diran piramideak. Euren jainkoak uragaz euken zer-ikusia. Iturriak, zingirak, itxasoak... jainkoen tokiak ziran eurentzat.

Ume txikiak burua leundu eta agiñak zorroztu egiten eutseezan, izakera berezia izan egien.

Gudak irabazten ebezanean, arerioen buru-azur legortuak izaten ebezan garaipen-ikur.

29 laterrik osotzen dabe Mexiko, baiña lurraren zabaleraz Frantze-lako lau da.

Estutasun barik, zirri-zarra, lan egiten dira zaleak, baiña meatzetan lan aundiak egin dabez: Urtero 2 000 tona zidar ateraten dabez, mundu osoan ateraten danaren erdia. Baita kobrea, beruna, burdiña, zinka, azufrea be ateraten dabez eta kafea ta algodoia irabazbide onak dira eurentzat.

Errietan, eleiza zar baten gerizpean, teilla biribillezko etxe txikiak daukez, plazea inguratzen.

Inguruko mendiak zugatzez ondo jantziak dira: izaiak, kaktusak...

Artozko taloak eta euren erako ardauek eskintzen dautsez lagunai.

Amaitu baiño len egoera larri bat agertu bear dogu: Mexiko´n asko dira txi-roak eta onein guraria lpar Ameriketara sartzea da, baiña mugak ondo zainduta daukez eta oraintxe diardue egiten

orma luze ta ikaragarri bat inor erbestera ez daiten. Berlin´eko

ormea bota gendun, baiña nonai dagoz orma barriak

OLAZAR´tar Martin´ek.